



Alaine Agirre

LIBE

erein

LIBE

J XAN
d AKA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuesenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com;
91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2017ko azaroan

Azaleko argazkia:

Aitor Arana

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Alaine Agirre

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-211-7

L. G.: SS-1199/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus   

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Alaine Agirre

LIBE

erein

1

Neuk askatuko zaitut

–Erantzi alkandora; horrela... –diotso Libek parean daukan neskari–. Astiro, botoiz botoi...

Eta ez daki nondik, baina bulkada bat etorri zaio, sentitu du Libek, eta ezin izan dio bulkadaren inertziari eutsi, eta...

–Lagunduko dizut goiko botoiarekin.

Orduan, atzamar dardartiz, hurbildu eta goiko botoia askatzeko keinua egin dio neskari. Alkandorari, hobeto esanda. Baina neskari ere bai. Eta iruditu zaio paparreko botoi hori askatzen badio, neska askeago sentituko dela. Libreago eta “Libeago”. Gustatzen zaio hori egitea. Liberi. Laket dituen neskei askatasun pixka bat, arnasa apur bat ematea, eta berak hain beharrezkoa duen libertate sentsazio horretatik zatitxo bat lagatzea. Horrelakoa baita Libe. Hori baita Libek egiten duen iraultza txikia. Edo ez hain txikia. Askatasuna ematea. Bera badelako askea.

Libe badelako libre. Baina hau pentsatzen ari den bitartean, hari batekin trabatuta geratu zaio botoi txikia, eta apur bat gehiago hurbildu behar izan du neskarengana; hurbildu, bestearen arnasa bere arnarekin nahastu arte; hurbildu, begiradek elkarrekin topo egitea arriskutsuegia den distantzia labur horretaraino; hurbildu intimitaterantz, hurbildu erakarpenerantz, hurbildu erru sentimendurantz.

Izan ere, Libek bikotekidea dauka. Izan ere, Libek maite du bere bikotekidea. Izan ere, Libek konpromisoak, loturak eta hariak dauzka beste pertsona batekin.

Ezin baina ebitatu...

–Zure botoi hau askatu ezinik nabil... Ez dizu ba inportako... –Eta orduan Libe gehiago hurbiltzen zaio neskari, apur bat gehiago oraindik.

–Neuk askatuko dut –esaten dio neskak, eta Libek sentitu egin ditu neskaren berbak eta haien laztan epela bere ezpainenetan, hurbilegi baitaude baren ezpainenak bestearenetatik.

Ezin beraz ebitatu...

–Lasai, laztana. –Irri bat–. Neuk askatuko dizut... –Begiarekin keinu bat–. Eta zaitut.

Urrunegi joan da beharbada. Gehiegi lotsatu du bere ezpainenetik hurbil, hurbilegi daukan neska.

“Laztana” deitu dio. Eta “neuk askatuko dizut, zaitut”. Lartxo, larregi oraingo honetan, neska gehiegi lotsatu duelako; eta lartxo, larregi, bere burua gehiegi kulpabilizatu duelako.

Istant horretan lortu du botoia askatzea. Botoiarekin batera, neska bera ere askatuz. Eta ez da izan bera, oraingo honetan behintzat ez da izan Libe, besteari hurbildu eta muxu umel bat eman diona.

–Barkatu, baina... –esan dio Libek neskari, egoera urrunegi joan delakoan–. Ezin dut.

Eta orduan gertatu da. Orduantxe sentitu ditu Libek bere libertateari ezarri zaizkion mugak soineko estuegi bat bailiran. Orduantxe, une horretan sentitu ditu Libek bere ideiak baino indartsuagoak dirrela sentitzen dituen mugak. Gauza bat dira ideiak, beste bat sentimenduak.

Agian bere ama ezkongabea izateak, akaso aitak abandonatu izanak markatu dute Liberen izaera. Edo ez. Ez da, edo ez du Libek uste behintzat, konpromisoari ihes egiten dionik, maitasunari ikara dionik. Ez, ez da hori. Ez da, ezta ere, itxurakeria, bere fakultateko neska batzuek duten jarrera libertinoa imitatu nahia. Ez, ez da hori. Askoz konplikatuagoa da. Askoz... sakonagoa.

Maite du Libek bere neska-laguna. Heldu da bere neska-laguna maite duen modura maitatzera. Bera. Libe. Horraino heldu da. Diferente maitatzen baita, izan ere, adin batekin zein beste batekin. Berak maite izan zuen bost urterekin Estitxu; maite izan zuen, beste modu batera baina, hamalau urte zituela, Miren; maite izan ditu pertsona bat baino gehiago, neska bat baino gehiago; baina bakoitza modu batean. Orain, hemeretzi urterekin, heldu da bere bikotekidea maite duen moduan maitatzera. Bai hemeretzi urterekin beste heldutasun bat duelako, bai pertsona hori modu zehatz batean maite duelako. Izan ere, Libek pentsatzen du pertsona bakoitza modu batera maite dugula: dela geu gauden bizitzako momentuaren arabera, dela pertsona hori bakarra eta desberdina delako.

Maite du Libek bere neska-laguna. Baina maite ditu Leioako kanpusean paseoko arbolak, maite ditu bisitatu dituen hiriak, maite du bere kamera analogikoa, eta maite ditu Oier, ama, gaztetxeko lagunak, karrerakoak eta, zergatik ez, neska-laguna duen arren, maite ditu, beste modu batean, beste dimentsio neurgaitz batean, beste neska batzuk ere.

Bizitzak berak ekartzen dizkio pertsona bat eta bestea, bakoitzarengandik zerbait ikasi, zeozer bizi

ahal izateko. Baina, hala uste badu, zergatik uko egin aberastasun horri? Ez du sekula bere neska maite duena bezainbat beste inor maite izan, baina Libek badaki ezin duela espero bere beharrizan denak pertsona bakar batek ematea berari. Libek berak ere ezingo lituzke bere bikotekidearen beharrizan guztiak ase.

Horregatik itxi ditu begiak Libek. Horregatik hartu du arnasa Libek. Horregatik erauzi ditu bere irudimenaren indarrez hesiak eta mugak eta limiteak, eta, inpultsoa hartuta...

–...hegaz egin nahiko nuke –esan dio Libek parean daukan neskari–, zurekin.

Eta hori esanda alkandora kendu dio neskari. Puntillazko sosten beltzaren tirantea jaitsi dio.

–Prest?

Eta neskak baietz buruarekin. Orduan hartu du alboan duen kamera. Fokuak eta argiak piztu. Eta horrela hasi da Libe klik eta klak, klik neskaren sorbaldaren gainean, klak klabikularen goiko aldeko lakuan, eta kokotetik behera erortzen den ile gorriari, eta lotsati erdi ezkutatuta daukan kokotsari, eta...

2 Oier

–Zelan argazki saioa? –diotso Oierrek Liberi.

Libek kafe ebakiari zurruta egin dio, Oierrengan begirada iltzatuz, baina hitzik egin gabe.

–Ze argiztapen erabili duzu? –jarraitu du Oierrek galdezka–. Bi orduz egon zara estudioan, aterako zenituen ba argazkiak milaka!

Libek zurruta kafeari, esanez bezala hobe isilik banago.

–Ez esan ezer: neska bati atera dizkiozu argazkiak –berriz ere Oierrek.

Beste zurrut bat, beste begirada bat, beste isilune bat.

–Ez esan ezer: liatu egin zarete –ostera ere Oierrek.

Eta orduan Oierren barrea, eta Libek kafe ebakia bukatzea eta isilik geratzea. Ez baitago berben beharrik, beti bezala, Oierren eta Liberen artean.

Leioako kanpuseko kafetegian daude, bien agendetan libre koadratu zaien ordutxo bat aprobetxatuz, elkarrekin kafe bat hartu eta beren kontuez berba egiteko.

–Esan egingo diozu? –oraingo honetan itauna, Oierrek, serioago ipinita.

Liberen kikaran ez dago kafe gehiagorik, hari zuruta emateko. Ez dago jada zentzurik ez arrazoirik isilune hori mantentzeko.

–Ez dakit –Libek.

–Zuen “kontratuaren” barruan sartzen da bakoitzak bere harremanak izatea, bikotetik kanpo?

–Ez dugu horretaz hitz egin, oraindik.

–Oraindik, diozu?

–Ez dugu horretaz hitz egiteko tarterik izan... edo momentua, edo unea, edo... nik zer dakit ba.

–Lau hilabete kolaz elkarri itsatsita daramatzazue, eta ez diozu esan zer pentsatzen duzun?

–Joder, Oier...

–Ez, Libe: joder, zurekin.

–Uste nuen nire laguna zinela.

–Horregatik ari natzaizu hau esaten, zure laguna naizelako. Ez dakit berak zer pentsatuko duen, eta inporta zait, bai; baina gehiago inporta zait zu berarekin ez izatea zaren bezalakoxea. Ez izatea zu zeu.

–Ez esan hori!

–Orduan noiz arte espero zenuen gordetzea harreman ireki baten bila zenbiltzala?

–Ez etorri orain nigana “harreman irekiak” eta horrelako etiketekin... badakizu ez zaizkidala gus-tatzen!

–Baina praktikan horixe da nahi duzuna, Libe!

–Ez, Oier, ez. Eta badakizu. Ni ez nabil ezeren bila, inoren bila. Ez noa hortik edonorekin lige bila... Badakizu zer pentsatzen dudan. Eta zer si-nesten dudan.

–Bai, badakit: “Libe librea da”.

–Oier, kabendios, ez zait lau hilabetean gertatu, ez noalako horren bila, baina etorri egin zait, egoera etorri zait, pertsona hori etorri zait, eta gogoia eta erakarpena eta berarekin txortan egiteko nahia... Zergatik ez nuen ba egingo?

–Ez dakit ba Libe... adibidez, Marenengatik?